

San Pedrotik ez dira pasako

Behin batean, beste urte askotan bezala, Altsasun San Pedro eguna zen eta jendea gogoz prestatu zen jaiegunerako.

Hauetako bat apaiza zen. Goiz samar iritsi zen San Pedroko zelaira eta zen orduan izanda, jende mordoak aurkitu zuen bertan: hamarretakoa egiten suen inguruan, hizketan, abesten... beno, azken hau koralekoak bere txoznan. Berez urterokoa dena. Dena dela, apaizak aurreko urteetan ez zegoen zerbait sumatu zuen giroan, manifa bat pasatu baitzen zelaiaren alde batetik bestera baselizaren atarian amaitu arte. AHT EZ zioten pankartak zeramatzaten, jende askok ere soinean horrelako pegatinak zeuzkaten. Gazte batzuk eskuorri batzuk ere banatzen ari ziren, baina apaizak ez zuen ikusi zeri buruzkoak ziren. Gertakari hauei ez zien garrantzirik eman eta jendearekin hizketan aritu zen meza ordua iritsi arte, baina gaiak ateratzen jarraitu zuen.

- Agian hau izango da San Pedroko azken erromeria, tren alu hori dela eta. –
esan zuen gizon batek.

- Jainkoarren! Gobernua ez da ausartuko. San Pedrok ez du onartuko. Tradizio handia dauka. Bide batez, etorriko zarete gero mezatarara, ezta?

- Bai, jakina.

- Noski, zu etorri aurretik hori komentatzen ari ginen.

- Urtero bezala, mezetara joan beharra dago.

- Bai, bai, meza gabe ez dago jairik.

Horrelako mezuak entzunda pozik joan zen apaiza baselizara, ilusioz beteta meza ematera, batez ere oso sermoi polita prestatua zuelako, hirutasun santuari buruz. Baina, ordua iritsi eta ezustea handia izan zen. Lauzpabost aiton-amona bakarrik agertu ziren. Haserre bizian zegoen, ez baitzen izan jenderik ez zegoelako, ingurura begiratu besterik ez zegoen: jende pila ageri zen, gazte eta zahar, gizon eta emakume...

Bere desesperazioan, jende gehiena ageri zen lekura joan zen: AEK-ko txoznara. Bertan aurkitu zuen herriko beste apaiza. Geroago iritsia zen eta ez zekien mezan gertatutakoa. Kontatu egin zion eta amaitu zuen:

- Kokoteraino nago! Zerbait egin behar dut. Nitaz barre egin dute.
Adarra jo didate.

Txoznako elektrizitate generadorearen ondora hurbildu eta zaratari esker, beste inork entzuten ez zuela, plan bat pentsatu zuten: puroaren orduan zurrumurru bat zabaltzea.

Momentua iritsi zenean, puroen zain ilaran zeuden pertsonengana hurbildu eta ondokoa askatu zien:

- Nafarroako Gobernuak abisatu du apezpiku-barrutira eta hauek guri AHTa San Pedroren baselizaren gainetik pasatuko dela eta hasteko prestatzen, hau izango delako baselizaren eta jaiaren amaiera.

Zurrumurrua berehala zabaldu zen. Altsasuarrak sutan ziren. Jaia bertan behera utzi, santua bizkarrean hartu, autoetan igo eta Iruñara abiatu ziren. Han Paseo Valencia osoa hartu zuten, lasterka joaten ziren, santua bizkarrean.

- Hemen gaude, San Pedroren alde!- oihukatzen zuten.

Miguel Sanzek Gobernuko egoitzako tabernatik manifestazio zarata entzun zuen, baina ez zen ulertzen zer esaten zuten. Korrika zela pentsatu eta guardia zibilar deitzeko puntuan zegoela, bi apaiz sartu ziren tabernara. Altsasuko bi apaizak zirela azaldu eta zeri buruz hitz egin nahi zuten esan eta Sanzek bilera egitea onartu zuen.

Zurrumurrua hain urrun iritsiko zela ez zutela imaginatzen esan eta barkatzeko eskatu zuten.

Sanz erantzun zion bere plana ez zela ATHa San Pedro gainetik pasatzea, Altsasuko beste lekuren batetik baizik.

Gauzak horrela, hiruren artean, elkar pozik uzteko plana adostu zuten.

Apaizak esango zieten herritarrei lortu zutela baseliza eta festa salbatzea. Horrekin altsasuarrak pozik geratuko zirelako eta apaizak hortik irabaziak aterako zituztelako. Sanzek AHTa Altsasutik pasatzea lortu zuen, eta bere gustoko moduan, lehenengo Gaztetxearen gainetik eta gero euskaltegiaren gainetik. Baina hau, kontatuko zutela beranduago.

Modu horretan Altsasuko apaizak herritarren onartzea lortu zuten, herriaren alde egiteagatik eta jendea mezetara joatera lortu zuten.

Inork ez zuen galdetu nondik pasatuko zen tren, San Pedrotik pasatzen ez bazen.

Hilabete batzuk beranduago Gaztetxe eta euskaltegi gainetik pasatuko zela esan zuten eta berriro sekulako zalaparta sortu zen.

Egileak: Oskar Marañon

Iñigo Urteaga

Miguel Angel Nuncio